




EUSKALERIKO

BERIAK



GIPUZKOA

OGIA GALESTITU

Zuzumura sortu zan eta luzaro bano lenago bai egizatu ere. Ogi galestitu da. Galestitzea nai ta nai ezkoa izan ezker, egin duten eran eta neurrian egitea or nunbait.

Ogi txikiak edo ogi goxua ugari xamar saltzen dan tokietan, ogi aundiak, sendi-ogiak ez dira galestitu. Erri oiek Donosti ta bere inguruko Aliza, Astigarraga, Errenderi, Ernani, Lasarte, Lezo, Oyartzun, Orrio, Pasai, ta Usurbil dira.

Oietan ogi txikiak galestitu egin ditute, bano ogi aundiak ez.

Erri oietan ogi txikiak irabaziarakin ogi aundietako irabazi-eza, batez beste jotzen dute.

Gipuzkoa'ko beste erri guztietan ogi aundiak ere txakur txiki bat galestitu egin dute.

Galestitze ori galerazteko Madrid-erario jo ta, alegiak egin dira bano, alperrik izan da guztia. Len doidolan zebillanak alderdi ederra dauka orain.

Ogia ta beste bear-bearrak diran gauzak, galestitu; lanik ez. Alderdi ederra!

BEASAIN'DARRAK ESTU TA LARRI

Beasain'darrak lanik ezak estutu ta dabilta. Ori dala ta asi dira nundik edo andik lana sortzeko baztarrak zultzen. Gaur zortzi izan zuten baztarrak Donosti'n arazo oietan sartuta daukdenak; Beasain, Ordizia, Lazkao, ta berrak.

2.200 langille omen zebiltzan lanean 1931'garren urtean. Eta orain 754 bakarrik. Besteak, iru egunetan eta lanean luzaroan ibilli ta gero, lanari utzi egin bear izan diote.

Itzaldi egokiak egin zituzten batzuk eta besteak. Eta esana aditu nai badute ta norberriak alde batera utzi ta beste orgadi-olai bezela Beasain'goari ere lagundu nai ba diote, erakutsi zaie zerbait egin dezatekenal nola jokatu. Pikabea'ren itzaldiz, Eusko-Araudia edo Estatutua etortzean, 48 ordu barru lanik eza uxatuko omen litzaie Euzkadi'tik.

Ikusiko degu zertan gelditzen dan gauza.

ESPARTZA TXOPERRA ETZUTEN OIEK IL...

Joan dan astelenean egin zan Donosti'ko auzitegian Igeldo-bidean txoperra il zutelakoan espetxeratuak zeudenak aren erailleak ote ziran edo ez ikusteko auzia. Orrelako auzietan oi danez, Jurado edo dalako erri-epaileak erabakitzen dute auzia.

Arratsaldeko iruretan asi ta goizeko laurretan amaitsu zan eta azkenik espetxeratu egon diran, Alfonso Martinez, Felipe Fernandez eta Guillermo Lekuona «Listones» errugabeak dirala ta kalera bota dituzte. Jendeak besterik ueste bazun ere ta izan ere noski bestela izango ba zan ere, jurado'koak erailketa artan txori oiek zer ikusirik ez dutela esan dute ta kalera.

Oiek kalera ta Idiakez oraindik espetxean... Gizarajoa!!

ERRENDERI'KO «PAKERS» GALLETA OLA ITXIKO OTE?

Alde guztietako negarra Errenderi'n ere: «Pakers» galleta-ola itxiko ote dan.

Ezin omen dezateke nagusiak orrela jarraitu ta edo lan-sariak txikitu edo lan-orduak gutxitu; bitan bat egitekotan omen dira lanean aurrera jarraitzea nai bada. Agintariak edo langilleak bi gauza oietako bat egiterik nai ez ba dute, ola itxi bearrean izango omen dira.

Jauriaria ta dabilta nagusi-langilleekin artu-emanetan. Zertan gel dituko ote da gauza?

IRRAT-IZKINAK ETA IRRAT-ENTZUKINAK

Muga jauriariak asmo bat agertu

«Gipuzkoa'ko Gestora'ri, er-nagusienetan eta beste toki berezi-tzutan irrat-izkin eta irrat-izpintzea.

Gestora'k aintzat artu du asmoa ta ikasi ta ikusiko du zer nola egin ditekori. Oraingo tresna oiek jakintza-aldez eta okerrak egin eta igesi egin nai lutekenen berri azkar zabal-tzeko ta orrela gaizkiak errezagotxizteko lagunduko luteke.

Errusi'n, Alemani'n ta Itali'n jarriak daude; an ordea politika-gaiak zabaltzeko erabiltzen dituzte.

Oraingo erri nagusienetako batean ikustekotan dira.

GAUERAKO BIL-TOKIA

Jauriarien beste asmoa. Bizi-lekurik ez dutenentzat Donosti'n gauerako bil-toki bat egitekoa.

Orretarako Gestora'ko lendakaria-ekin eta Alkate jaunarekin itz egin omen du. La Perla del Oceano-azpi-an eta Norte'ko geltoki-inguruan eta gaua igarotzen asko gelditzen omen dira. Neguko gau otzetan espetxera lotara joan naiez asko urbiltzen omen zaizkio. Espetxerako ez dute ordea ezer okerrik egin. Orregatik beste bide batez begiratzea ote zaio jauriari-ari.

Toki berezi bat egin, bizilekurik ez duten jende oiek, gaua nun igaro toki babesa izan dezaten eta otzari erre-zago gogor egin al izan dezaioeten.

Jose Goikoeitxe Zulaika

Ortzlari ta sendagillea

Ortz berriak jarri ta txarrak ateratzeko ortzlari trebe ta konfiantzakoa

Mayor 1, 2.º — DONOSTIA

EUSKALTZALEAK

V'GARREN EUSKO OLERTI JAYA ZARAUTZ'EN

AGIRRE'TAR JOSEBA
MIRENA'REN OMENEZ
(Lizardi'tar Xabier)

1934'ko Garagarillaren 10'an OLERTI GUDUA

LENENGO SALLA:

Opazko saria: zilarrezko aritz-abarra, larru landuzko azpiki. Zernai galezko ta ariko olerkiak.

BIGARREN SALLA:

Saria: 500 laurleko.

EPIKA deritzan ariko poema bat. Gaia, naiz edestizkoa, naiz alegizkoa; edo-ta, eusko-seme ospetsu baten egintzak eta joan-etorriak. Gai ori zenbat eta erriarentzako. ezagunago ta deigarriago, obe. Erri xeearen berrezko edermen ta elerti-sena galagotu asmoz jarria baita sail au. Beraz, poema orrek erriar-antzean tajutua bera du, naiz bertsolariena bano jantzeago izan ta, berok oi duten eraz, abesgarria, kantagarria. Ez bedi izan luzeegia; bano bai, abestuz, ogei bat minutu bete alakoa.

IRUGARREN SALLA:

Lau sari: 100, 75, 50 ta 25 laurleko.

Erri-olerki-sortak. Bear-bearrezko da, olerki oiek erriar gorri izatea: beraz, orain ala noizpait erriak erabiliak. Entzun bezelaxe idatzi bitez, itz bat bakarrik ere aldatu gabe, erderakeri zakarra bantz ere. Adirazi bedi zein urietan jaso dan, ta noren epanetatik.

Olerki oiek gai askotarikoak ditezke. Ibilalde-abestiak (eshte baterako, Olentzaro, Urteberri, Deun Agate, Deun Nikola'takoak...); erri-jaietakoak (naiz dantz, naiz su; aizkolketak, ala sari-joko...); lanbidezkoak (artzain-tza dala, egurketa, ariketa, arta-jorra, arraintza, t. a.); yalnkiotak (Ama Neskutari, Deunei, erriko zaindariari, gurutze-bidea...); irrizkoak; salegiak; eta abar, eta abar.

«Bertsotxerriak» ere artuko dira.

Amarreko sortarik onenari leenengo saria. Bostekoari, bigarrena. Irukoari, irugarrena. Bakarkakorik onenari, laugarrena. Sail onen elburua, erri-olerkiak albat ugarien biltzea da; lanbide aberkoi ederra, benetan.

BALDINTZAK:

I. IRU SALLEKO LANAK JORRAILLAREN 30'N BITARTEAN BIL-BEARRAK DIRA.

II. Epai-maiak sarirako olerkien adi-erreztasuna, kontuan edukiko du. Olerkariak argi adierazten sailatu bitez, ba.

ZUZENBIDEA:

Sr. Secretario de Euskaltzaleak
Certamen Poético.

Sociedad de Estudios Vascos
Palacio de la Diputación.

DONOSTIA

eup!!

BADATOR,
BADATOR...

...mundua mundu dan

ezkero egin dan eus-
kerazko libururik
ederena,
apañena,
txukunena
bikañena...

egon aretaz zai.

BADATOR,
BADATOR!!

AIZAR

Bilbaon, Gotzai jauna buru zala, egiñ ziran itzaldi eta elizkizunetara juan da aurreko aste guztia an igaro zuen gure erretore maite Agote'tar Pedro jaunak.

EZKONTZA

Aurreko larunbatean Iziar'en ezkon-du zan Etxaide'tar Maria, Orrio'ko batekin.

Zorionak eta urte askorako izan zaitezela.

Agate Deun bezperan nai dabenak jakin Deun Engrazi mendi txapel gorriak olerkari zebillen bere lagunak baldin itxuraz bildu badezu beñepeiñ jaietan jango al degu denok alkarrekin?

TXIKI

ALBIZTUR

ZATARKERI ZIGORGARRIA DA ZELATATZEA

Norbatzuei (ixilpeko gauzak alkarri esaten ari diranean batez ere) ate edo leyo zuletik, edo beste era maltzur kiren batean zelatatuaz entzuten egotea, zatarkeri zigorgarria da, bai. Eta inoiz entzun bear ez liraken era ortan adituko gauza ixillak, ezin agertu leizke; ixilpeko gauza oyeikin, ezin baliatu gindezke.

Izendatu edo esan detan era maltzurki orretan entzutea, berez oben larri edo pekatu mortala dala, idatzi doneren irakurri izan det; eta batzuek orrela entzute ori, oarkabezko jakinai utsez eta gaiztokeri edo malezi gabe egin balezake ere, beti da itxuskeri aundia era ortan entzun edo aditzen egotea. Ori zillegi edo libre baltiz, ezinezko edo zailla izango litzazuke lasai bizitzea.

Oi diran zelatari txit zigorgarriak, obe ez ba leuzkate beren belarriak. Beren erruz dabilta batzuk elbarriak, ezin iritxirikan gizonen neurriak.

Zelatari okerrak oi dira maltzurak, esaten dabilzanak ugari gezurrak. Zelatan atxitzean emanaz ederrak, ongi da berotzea oyeri bizkarrak.

LUISTAR

ALEGI

Oraintsu arte emen egon dan Arelzaga'tar Gregorio Miketako kaboa, Ortzantera'ko izendatu dute, sargentotzara iyo ondoren.

Bere ordez, Tolosa'tik Azeptia'tar Jose kaboa etorri da.

—Euzko langiletako bazkidea, dan Eliot'ar Batistaren emazteak izan duan aurari, Miren Pantzeke euskal izena ipini diote batayatzerekoan. Zorionak gurasoi.

—Larunbat gaubean eta elizakoak artu ondoren il zan gure lagun Jesus Azurza'ren emazte, Maria Soledad Larrañabe. Laguntzen diogu bere senar ta gañerako sendiko guztiei beren atse kabean. (G. B.)

MOXKOLEGI

ALTZA

Beste errietako Batzokietan bezela emen ere izandu degu batzar nagusia ta batzar nagusi onetan gizon jatorrak aukeratu biar ziran; bai aukeratu ere. Ona zein: lendakari, Muxika'tar Joseba; lendakari ordekoa, Arrieta'tar Koldobika; idazkari, Goikoeitxe'tar Segundo; diruzal Otegi'tar Andoni. Zorionak lenago egondutakoal ta orain zaudetenal.


LUISTARRAK

Juan dan Igandean izandu gen!



URDAIA
(ESTOMAGOA)

bizitzeak ematen digun
alaitasunaren iturria da.



Zaindu zazu ondo
jan egokiak emanaz eta

Dr. Vicente'ren

Digestonikotik

kutxarekada batzuek
artuaz.

Sendakaitegiatan salgai.

duan Jaunartze zazpietako mezetan ta meza ondoren bildu giñan jantzerako gora-berak ikusteko, ta batzuek beren karguak uzteko besteak artzeko. Lendakari aukeratu genduan Luistar jatorra dan Usobiaga'tar Tomas; lendakari ordeko Esnaola'tar Joseba Julien; idazkari, Goikoeitxe'tar Segundo; diruzal, Otegi'tar Andoni. Luistarrak aurrera beti jarraituaz gure zaindari degun Luis Gontzaga donari, lengo suaren txinparta itzaldutzen utzi gabe.

JAYOTZA

Otegi'tar Joseba ta Orbegozo'tar Miren Koldobike'k semetxo eder bat izan dute, ta kristau egin dute Joseba euskal izen polita ezarriaz.

URRETXINDORRA

ALTZOLA

DEUN AGATEZ

Oitura zarrari jarraituaz aintzat abeslari aldra ibilli ziran. Deun Agate bezperan gure uritxo onetan. Zer esanik ez bikañenak Elgoibar'ko Euzko Batzokiko aldra izan zala; goizean gior nabaitu nuan norbait milaia ote zebillen eta irten nintzan atera ta nun arkitzen detan «Xapi» jauna bere lagunekin; bano «Xapi» benetan diozu «Abertzi» ezkontzen dala? Ori orrela izanik neu beintzat «erre-galia» gertutze nua, gero «boda» juteko «konbidatzen» banau beintzat. Zorionak Gotzon. Onuzkero «Ixakak» patinaketan ikasiko zuan ez da ala?

Entzun detanez Donostian zorrotz-illak lana erme egiten debela, beñepeiñ guraiza zorrotzak daude bazturretan. «Ez da ala «T»?

MENDI-ZALE

Zorroztu berriak daude nereak beintzat, «Mendi-zale». Labur-labur, gaur-kaon zuk bezela, alegia, guziak idatzi ko baluteke, nik guraizak ibilli berrikerik ez—T.

AMASA

AMASARRAK, ENTZUN

Denbora asko da arriturik nagusi emengo abertzale askoren mintzartezekin. Batzokian, kanpian eta nere uestez etxian ere bai, beti erderaz mintzantzen dira batez ere emakumeak. Abertzaleak gerala diyogu, gero. «Bai zera! Abertzale ona izateko aberriko gauza guziak maite bear ditugu. Eta euskera uzten duan abertzalea ez da benetako abertzalea. Amasarrak, euskera beti itz egi ndezagun eta gure uri maite au elduko da beste uri nekoren mallera.

Aurrera, bada, Amasarrak, mintzatu gaitzen guziyok euskeraz.

«ZUBI ONDO» BIGARRENARI

Barkatu, bano adizak «Zubi ondo», Zizurkil'en bizi izanik «nolaz ez da ere erriko berri bat ere ematen?

Lenago «Mendigoizaleak» «El Dia» izparringian idastutzen eta aspaldian onetan ez dik idastzen.

«Bildurtu egin ote dan?

ANOETA

Juan dan Igandean Tolosa'ko abertzale jatorren ikustaldi pozgarria izan genduen Anoetarrak.

Igazko udaran ugarte ikaragarri ayek, beste toki askotan bezela gure lur ta baztarretan egin ziran itzaldetarak zerbait aintzearen, erri onetako nekazarien artean ta abertzaleen artean 1.200 peseta bantzeza etorri ziran, eta esan blarik ta dago zantzetan terofonoko esker onet erakusten dute yotegun, anaitasuneko itzak bantze naitasuneko egintzak orren ongi losar abertzale oiek agertu ditzake telako.

Orlaxe erakusten dute gazte euskar tar oiek baserriarrentzako maitetasun egikorra, eta guri: benetan aldatzen degu nekazarien biartasun ta larritasunetan laguntze o beti prest dau dela gure anal euzko abertzaleak. Nekazari guztien izenak: eta ARGIA'ri bitartez eskarrikasko.

—Ostegunian, eliz ontan ezkondu ziran Alegi baserriko Garmendia'tar Jose mutil gazte ta abertzale jatorra ta Aginazpiko Mayotz'tar Maria nekatz txukun ta pampoxa.

Alkarrekin urte askoan zoriez baterik bizitzea opa «diotegu ezkonberriei.

—Errota-baserrikoa, ainbeste maita zuten bi urteko Jasinto izeneko ume-txua zeruratu zaioje joan dan larunbatean. Laguntzen diotegu beren semetxoan eriotzak in artu duten samintasunean.

—Urrutine baserriko Juan Jose oiean gaxorik egun batzuek igaro ondoren pizkurtu dala jakiteak asko poztu gaitu.

—Elizako aldare nagusi ta bere aldamenak, Tolosa'ko de Juan'en langille jatorrak berritu ta apaindu ondoren, lenaz gaitza orain guztiz txu